


**SAN BALENTIN
BERRIOTXOA
ARIZTI
Bizkaiko
zaindaria**

Zenon Uriguen
pasiotarra



**BALENTINEN
AURTZAROA**

Ikusi eta sinistu, ikusi ta ezagutu, ikusi eta bizi. Auxe da mundu onetako jakintzarik berebiziena Balentin umeak sendi barruan bizia. Balentin Elorrión jaioa da 1827an gurasoak Juan Isidro ta Maria Monika izanik. Gurasoak lege bat dauke Balentin semeari eziera oberena emoteko: bai, biotza maitasunean busti-busti egiñik semearen onbidea onartu ta goratu eta txarbidea, zigortu barik, onbideratu. Zorioneko ezieraren asmo ta elburua. Gaur egun esan oi da: **“Gazte, iñor ez da zure aunditasunaren egille izango. Zeu izango zara zure aunditasunaren egille ta eragille”** Esan eta izan. Egunen buruan aitak esango dau: **”Balentinek ez dau bear iñor aroztegia ta beste zeregiñak ikasteko, berak egiñalak egiñez ikusi eta ikasiko ditu ikastekoak”**.

GAZTARO ERAGINKORRA

Balentinek asierako ikasteak erriko maixu Jose Etxebarriagaz egin zituan. Sasoi onetan aita Mendoza da lekaimen kapellaua. Balentinen ontasuna ta buru argitasuna ikusirik Dominiko izatea gura dau, ta latin erakusten dautso. Bitarte onetan Balentin akolitu eta eskola umea izanik sakristau ta musika ta pelota zale, dantzari eta aurrekulari, bertsolari ta erri-oiturai lotua. Santa Anako Lekaime Dominikak euren komentuan arotz-lanak egiteko Isidro Balentinen aita zan arduraduna semearen laguntzaz. Emen Balentin monagillo izan zan. Balentin txistulari ta aurrekulari trebea izanik San Juan ermitan aurreku egiteko aukeratua izan zan eta erria arrituta txaloka jarri.


APAIZGINTZA



Itzetik ortzera, bat-batean, ezin da gure bizibidearen elburua bete ta loratu. Balentinek bere familiaren sustraietan eta kristau bizieran oñarrituta dauko bere oraiña ta etorkizuna. Eta bere barne muiñetan sentitzen dau ar bizi bat, beste ardura guztien ganetik: Apaizgintza. Sasoi ontan Bizkaian ez dago abadegaien ikastetxerik eta Logroñora doa. Arako eskabidea egiñik argi ta garbi diño Aita Mendozagaz latin eta bestelako eliz

gaiak ikasi zituala. Diruaren faltaz beti dago prest Seminarioan serbitzu onuragarriak egiteko danen onerako. Bere alegiñaren ondoren, ekaiñaren 14an, Calahorrako katredalean abadegintzako ordena artu eban 24 urtekin. Abade egin ondoren parrokiarik ez eban artu baña ango ikasleen zaintza ta ardura betetzen dau. Logroñotik Okañara doa fraide Dominiko izateko asmoz. Betetzeko zer guztiak beterik 1853 urtean 27 gazteek Dominikotarren jantzia artzea ospatu zan eta geroago egin zituen botoak. Balentin Berriotsoa zeatz eta akats bako donetasun eredu ta gizon zuzena da.”Santu izan gura dot Bizkaiak santu bai euki dagian”.

BAI INDIETARA



Urte bi inguru talde barri au alkartean bizi da otoitzari ta bizi barriari eten barik josia. 1856 urtean Balentinek eta beste sei fraideak agindua artzen dabe Asiako dominikoen misioetara joateko. Bidaia onetan geratzen dira Manilan sei illabete, anamita izkuntza ikasten eta gero Tonkin urian, Vietnam bizitzeko. Emen mixio lurraldea oso arriskutsua da. Tuc-Duc bertako agintariak Kristau mixiolarien aurka lege gogorrak jarri zitun. Mixiolariak izkutuan bizi bear eta ez izena artzen dabe. Balentinek 31 urte daukoz ta egunen joanean ez usteko albistea artzen dau SamPedro gotzainaren auxiliar izatea. Bere sagaratzea Kristau etxe batean, ixilpean egiñik. Mons.Sampedro il zorian bizi da arrisku gorrian. Aste bi geroago urkatua izan zan. Mixiolariak banaturik Balentin Berriotxoak abegi ona artzen dau familia kristau baten etxean. Kristau guztien egoera ta biziera oso larria zan euren kontrako eraso-aldia gaitik. Zorionez gora-bera larri onetan. Hermosilla gotzaiñagaz batu dira alkartasunean, fedean ta otoitzan. Batzuk Macao baketsura joateko erabakia artu eben. Baña, au bai, erabaki goragarria, Balentin eta Hermosilla Gotzaiñak ta Amato´k ez dabe utzi gura euren Kristau erria eta antxe izkutaturik edo kristau familietan biziko dira. **Ori bai, benetan Kristoren fedea ta fededunen alde bizia emotea.** Bitarte onetan zer? Bateatu Kristoren izenean, mezak ospatu, pekatuen parkamena emon etb. Baña zoritxarreko egun batean kristau batek salatu egin dabez. Eta Hermosilla gotzaina, Balentin eta Almató kate gogorrakin loturik aginterien aurrera eron dabez. Kristoren gurutzea jartzen dabe lurrean esanez: “Zapaldu egizue gurutz ori ta Kristoren irudia” Gurutz aurrean auspezturik otoitzean geldi-geldi dagoz. **Au ikusirik ezpetxeratu ta aste batean oñaze gorrienak ezarririk, Kristoren fedegaitik bizia emon ta odol beroa ixuri dabe iru martir Dominikoeak, Santu guztien jaietan, azaroaren 1an, 1861 urtean. Gora Balentin Bizkaiko lenengo santua, eredu dalako bere bizi osoan, santutasunean, ume ta gazteentzat, dantzari, kirol-lari, bertsolari, apaiz ta gotzaintzat. Gora Elorrioko santua.**